

LEKUALDATZE LEHIAKETAKO OHIKO GALDERAK ETA HORIEI ERANTZUNAK

• ASPECTOS GENERALES.....	1
• PARTICIPACIÓN EN EL CONCURSO DE TRASLADOS	1
• PRESENTACIÓN DE INSTANCIAS.....	2
• PETICIÓN DE PLAZAS	3
• BAREMO DE MÉRITOS.....	5

• ALDERDI OROKORRAK

Zein Ebazpenen bidez onetsi da estatu mailako lekualdatze lehiaketaren deialdia?

Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuko zuzendariak emandako urriaren 7ko 226/2022 Ebazpenaren bidez, dei egiten da estatu mailako lekualdatze-lehiaketarako, kidego hauetako irakasle funtzionarioentzat: Maisu-maistren kidegoa, Bigarren Hezkuntzako katedradunen eta irakasleen kidegoa, Lanbide Heziketako irakasle teknikoen kidegoa, hizkuntza eskola ofizialetako katedradunen eta irakasleen kidegoa, Musikako eta Arte Eszenikoetako katedradunen eta irakasleen kidegoa eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko katedradunen, irakasleen eta tailer maisu-maistren kidegoa (Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2020ko urriaren 30ekoa).

• LEKUALDATZE LEHIAKETAN PARTE HARTZEA

2021/2022 ikasturteko azken lekualdatze lehiaketan behin betiko destinoa erdietsi zuten funtzionarioek parte har dezakete 2022-2023 ikasturteko lekualdatze lehiaketan?

EZ.

• ESKABIDEAK AURKEZTEA

Zein epetan aurkez daitezke lekualdatze lehiaketan parte hartzeko eskabideak?

2022ko urriaren 17tik azaroaren 7ra, biak barne.

Nola aurkeztu behar dute eskabidea deialdi honetan parte hartuko duten irakasleek?

Soilik aplikazio telematikoaren bidez, ekainaren 2ko 44/2021 Foru Dekretuak aldatutako 37/2014 Foru Dekretuan ezarritakoari jarraituz.

Eskabideak aplikazio telematikoaren bidez behar bezala egin ahal izateko, arrunt gomendagarria da aplikazioan dauden jarraibideak zorrotz irakurtzea.

Aplikazio informatikoa erabiliz bete behar den eskabidea aplikazio horrexen bidez bidali beharko da. Eskabideak aurkezteko epearen barruan behar bezala gabe igorritako zirriborroak automatikoki ezabatuko dira aipatutako epea iraungitakoan

Nola aurkeztu behar dira merezimenduak eta/edo eskakizunak?

Interesdunek erantsi nahi dituzten merezimendu edo/eta baldintzen agiriak aurkeztuko dituzte Erregistro Orokor Elektronikoaren bidez, eta Hezkuntza Departamentuko Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuari zuzenduko zaizkio; argitalpenak, berriz, aurrez aurre aurkeztuko dira Hezkuntza Departamentuko Erregistroan, Nafarroako Gobernuaren Erregistro Orokorrean, Nafarroako Gobernuaren gainerako erregistro bulegoetan edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan adierazitako bideren bat erabiliz.

Argitalpenak posta bulego batean aurkezten badira, gutun-azal ireki batean aurkeztuko dira, postako langileek, ziurtatu aurretik, data eta zigilua jar diezazkieten.

Praktiketako funtzionarioek frogagiriak aurkeztu behar dituzte merezimenduak baloratzeko?

Ez, praktiketako funtzionarioek ez dute merezimendurik aurkeztu behar. Praktiketako funtzionarioei destinoa esleituko zaie irakasle kidegoan sartzeko hautaprobetan izan zuten puntuazioaren arabera.

• LANPOSTUAK ESKATZEA

Praktiketako funtzionarioek zein lanpostu eska ditzakete lekualdatze lehiaketan?

Praktiketako funtzionarioek behin betiko destinoa eskatu behar dute, nahitaez, gainditu duten hautapen prozeduraren espezialitatean eta hizkuntzan.

Gainera, borondatez eskatzen ahalko dituzte oposizioko espezialitateetik aukeragai dituzten lanpostuak, hizkuntza berean, deialdiko IV. eranskinen ezarritakoarekin bat.

Halaber, beren borondatez eskatzen ahalko dituzte beren espezialitateko eta oposizioko hizkuntzako lanpostuak, hizkuntza-eskakizunekoak (ingelesa, frantsesa edo alemana), baldin eta hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzen duten agiriak aurkezten badituzte edo zerbitzu-orrian jasota badaude.

Behin betiko lehen destinoa lortu ez duten behin-behineko destinoa duten funtzionarioek zein lanpostu eska ditzakete?

Horretarako, zein espezialitate eta hizkuntzatan gainditu duten hautapen prozedura, horiei dagozkien lanpostu guztiak eskatu beharko dituzte.

Gainera, borondatez eskatzen ahalko dituzte oposizioko espezialitateetik hauta ditzaketen lanpostuak, IV. eranskinen ezarritakoarekin bat, oposizioko hizkuntza berean.

Halaber, beren borondatez eskatzen ahalko dituzte beren espezialitateko eta oposizioko hizkuntzako lanpostuak, hizkuntza-eskakizunekoak (ingelesa, frantsesa edo alemana), baldin eta hizkuntza-eskakizun hori egiaztatzen duten agiriak aurkezten badituzte edo zerbitzu-orrian jasota badaude.

Behin-behineko destinoa izanik, behin betiko lehen destinoa lortu zuten funtzionarioek zein plaza eska ditzakete?

Funtzionario hauek eskatu behar dituzte:

- Hautapen prozesua zein espezialitate eta hizkuntzatan gainditu duten, hartako lanpostuak.
- Ondoren eskuratu dituzten espezialitateetako lanpostuak edo ondoren gaikuntza eskuratu duten espezialitateetako lanpostuak.

Gainera, eska daiteke:

- Zein espezialitateko titularrak diren edo gaikuntza duten, hartako lanpostuak, IV. eranskinean ezarritakoarekin bat.
- Aurreko lanpostu guztiak, oposizioko hizkuntzan zein beste batean, betebeharrak betetzen badituzte.

Noiz adierazi behar dut "euskara" hizkuntzaren laukitxoan?

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa esparruko euskarazko espezialitateetako lanpostuak eskatu nahi diren orotan.

Euskal hizkuntza eta literatura (Nafarroa), Euskara, Euskara (Nafarroa), Euskal hizkuntza, Euskara helduentzat eta Komunikazioaren esparrua: euskara izeneko espezialitateei dagozkien lanpostuen eskaerek euskara eramanen dute lanpostuko hizkuntzatzat.

Noiz adierazi behar dut "ingeleza", "frantsesa" edo "alemana" "plaza elebiduna"-ri dagokion laukitxoan, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa eremuko lanpostuetarako?

Ingelesekoak, frantsesekoak edo alemanekoak ez diren espezialitateen kasuan, ikastetxe eleanitzetan ingelesez, frantsesez edo alemanez irakasteko Maisu-maistren Kidegoko edo Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Kidegoko lanpostuak eskatu nahi direnean soilik.

Beraz, ingeleseko, frantseseko edo alemaneko espezialitateko lanpostuak eskatzeko inolaz ere ez dira hizkuntza horiek adierazi behar "lanpostu elebiduna"-ren laukitxoan.

Noiz markatu behar dut ibiltaritzaren laukitxoa (lb.) Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren kudeaketa eremuko lanpostuetarako?

Maisu-maistren Kidegoan, ikastetxeak eta herriak eskatzerakoan lanpostuak ibiltaritzakoak badira soilik.

Helduentzako Pedagogia Terapeutikoa, Helduen Lehen Hezkuntza, Helduen Ingelesa, Helduen Frantsesa, Gutxiengo Kulturalak eta Entzumena eta Hizkuntza Eskualdean espezialitateei dagozkien lanpostuen eskaerek ez dute inoiz ibiltaritzako koderik eramanen.

• MEREZIMENDUEN BAREMOA

Berretsiko dira 2010-2011 ikasturtetik aurrera (ikasturte hori barne) lekualdatze lehiaketetan erdietsitako puntuazioak?

Bai, lehiatzaileak parte hartu zuen azken lekualdatze lehiaketako puntuazioa berretsiko da, merezimenduen baremoko I. atala izan ezik, hori ofizioz baloratuko baitu Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak.

Nori berretsiko zaie puntuazioa?

Hezkuntza administrazio honek 2010-2011 ikasturtetik aurrera (ikasturte hori barne) antolaturiko lekualdatze lehiaketetan parte hartu zuten langileei, salbu eta parte hartu zuten azken lehiaketan praktiketako funtzionarioak zirenei.

Irakasle funtzionarioek jakin dezakete zein den berretsiko zaien puntuazioa, hain zuzen ere, aurreko lekualdatze lehiaketetan erdietsi zutena?

Bai. Interesdunek lekualdatze lehiaketetan erdietsitako behin betiko puntuazioa ikusteko aukera izanen dute, eskabideak aurkezteko aplikazio telematikoan.

Irakasle funtzionarioek jakin dezakete zein diren merezimenduen baremoko I. atala baloratzeko kontuan hartuko diren zerbitzuen berri?

Bai. Webguneko fitxako esteka baten bidez, interesdunek beren zerbitzu-orrrian agertzen diren zerbitzuak ezagutu ahal izango dituzte. Zerbitzu horiek kontuan hartuko dira merezimenduen baremoan ezarritako irizpideen arabera, I. ataleko baremaziorako.

Puntuazioa berretsiko zaien parte-hartzaileek merezimendu berriak aurkez ditzakete?

Honako hauek bakarrik aurkeztu ahal izango dituzte:

- dagokion lekualdatze-lehiaketako deialdirako eskabideak aurkezteko epea bukatu ondoren hobetutako merezimenduak (aplikazio telematikoak data horren gaineko informazioa emango die interesdunei)

- 1.2, 4, 6.4 eta 6.6 atalei dagozkien merezimenduak, baldin eta karrerako funtzionario izendatu hobetu badira eta espediente pertsonalean jasota ez badaude.

Parte hartu zuten lekualdatze lehiaketako azken puntuazioa berretsi nahi ez duten parte-hartzaileek, dela ez daudelako ados puntuazioarekin, dela parte hartu zuten azken deialdiko eskabideak aurkezteko epea bukatu aurretik perfektionaturiko merezimendu berriak aurkeztu nahi dituztelako, zer egin behar dute?

Espresuki adierazi beharko dute parte hartzeko eskabidean, dagokion laukitxoan eta berriz ere aurkeztu beharko dituzte merezimendu guztiak.

Deialdiaren I. eranskin gisa jasotako baremoan zein merezimendu baloratuko dira?

Soilik baloratuko dira eskabideak aurkezteko epea bukatzen denerako (2021ko azaroaren 19a) dituzten merezimenduak, betiere epe horren barnean frogatzen badira.

Zein Master baloratzen da 3.1.2 atalean?

Soilik urtarrilaren 21eko 56/2005 Errege Dekretuarekin, urriaren 29ko 1393/2007 Errege Dekretuarekin edo abuztuaren 5eko 1002/2010 Errege Dekretuarekin bat egindakoa.

Merezimenduen baremoko 3.3 atalean zein hizkuntza titulu baloratuko dira?

Soilik hizkuntza eskola ofizialek luzatutako titulu edo egiaztagiria.

Zer egin behar dut 6.5 atalean puntuazioa erdiesteko, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak 2007tik aurrera irakasleen kidegoetan sartzeko edo horietara igotzeko deitutako hautapen prozedura batean epaimahaikide izan banaiz?

Irakasleak Hautatzeko eta Lanpostuak Betetzeko Zerbitzuak ofizioz aurkeztuko du irakasleen kidegoetan sartzeko edo horietara igotzeko hautapen prozeduretako epaimahaikide lanetan benetan aritu ziren lehiatzaileen puntuazioa. Ez da parte-hartze horren ziurtagiria eskatu ez aurkeztu behar.

Espezialitate berriak eskuratzeko epaimahai bateko kide izatea baloratzen da 6.5 atalean?

Ez.

Nola baloratzen da euskararen ezagutza?

Euskararen ezagutza 6.7 atalean baloratuko zaie EGA titulua edo baliokidea aurkezten duten lehiatzaileei. Hizkuntza Eskola Ofizialaren Euskararen Gaitasun Agiria EGA tituluaren baliokideetako bat da.

Zer egin behar dut Euskararen Gaitasun Agiria edo Hizkuntza Eskola Ofizialetako Euskararen C1 maila baremazioaren 3.3.b) edo c) atalean balora dadin?

Euskararen Gaitasun Agiria merezimenduen baremazioko 3.3.c) atalean edo HEOetako Euskararen C1 maila 3.3.b) atalean balora dadin, lehiatzaileak espresuki eskatu beharko du eskabide orokor baten bidez. Bertan ondokoa adieraziko du: "Euskararen Gaitasun Agiria edo HEOetako Euskararen C1 maila merezimenduen baremazioko 3.3. atalean balora dadin eskatzen dut".

Merezimendu hau aurkezten duten lehiatzaileek, espresuki eskatzen dutenean aipaturiko atalean baloratua izatea, 3.3.b) edo c) ataleko puntuazioa erdietsiko dute, dagokienaren arabera, hezkuntza administrazioen kudeaketa eremu guztietarako lanpostu eskaeretan. Hala, lehiakideren batek destinoa eskuratu nahi badu Nafarroako Foru Komunitatearen Administrazioiko Hezkuntza Departamentuko kudeaketa eremutik kanpo, lagungarriagoa izan lekieke eskabide hau aurkeztea.